Gizarte Zerbitzuen Departamentua
Departamento de Servicios Sociales
Bergaratik 010 – luz/ext: 1210
Bergaratik kanpo 943 779 100 - luz/ext: 1210
e-posta: ongizatea@bergara.eus

ARRISKU-EGOERAN EGON DAITEZKEEN GAZTE ETA ADINGABEEI INGURUNE IREKIAN PREBENTZIO-ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZEN PLEGU TEKNIKOA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da Bergarako udalerrian arrisku-egoeran egon daitezkeen gazte eta adingabeei ingurune irekian prebentzio-zerbitzua ematea adjudikatzea.

2. ZERBITZUARI APLIKAGARRI ZAION ARAUDIA

Gizarte Zerbitzuen arloa arautzen duten legezko xedapen guztiak aplikatuko dira eta, bereziki, honako arau hauek:

- 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa; horren bidez, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldatzen dira hein batean.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
- 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharrei buruzkoa.
- 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak zaintzeari buruzkoa; eta 3/2009 Legea, abenduaren 23koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legea aldatzekoa.
- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa.
- 152/2017 DEKRETUA, maiatzaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko Balora tresnaren eguneraketa onesten duena.

3. ZERBITZUAREN BALDINTZEN DESKRIBAPENA

Zerbitzu honen helburu nagusia da arrisku-egoeran egon daitezkeen gazteei eta adingabekoei euren garapen pertsonalean laguntzea eta tresna hezitzaileak eskaintzea, trebetasunak bereganatzeko eta baliabide eta zerbitzu komunitarioetan normaltasunez parte hartzeko.

Kontratuak honako zerbitzu hauek izango ditu xedetzat:

- Herrian ondorengo arrisku-egoeren **detekzioa**:
    - eskola-porrota (eskolan egokitu ezina, eskola goizegi uztea...)

ESKUc271b40c-337b-4365-a0b2-c1c18bdc7d85

  - droga (legal eta ez-legalak), joko eta teknologia berriekin lotutako kontsumo goiztiarrak eta arriskutsuak
  - gizarteratze-prozesu ezegokiak izatea (berdinen arteko harreman arriskutsu/gatazkatsuak, apurketak, bulling-a…)
  - indarkeria matxista edota bikote-harremanetako jokabide arriskutsu/kaltegarriak
  - sortu daitezkeen beste batzuk
- Goian aipatutako arrisku-egoeretan **esku-hartzeko proposamenak** egitea eta burutzea
- Gizarte Zerbitzuekin **elkarlanean:**
  - Detektatutako arrisku-egoera horien ezaugarrien balorazioa
  - Detektatutako arrisku-egoerak prebenitzeko esku-hartzeko proposamenak. Esku-hartze guztien proposamenak.
  - Arlo honetan eragina izan dezaketen udaleko beste sailekin (kirola, kultura, gaztedia…) edota herriko beste erakundeekin (eskola, guraso-elkarteak…) harremanak
  - Gizarte Zerbitzuetako teknikariekin adostutako beste edozein betebehar.

4. ZERBITZUA ESKAINTZEKO DINAMIKA

Guzti horren plangintza, jarraipena eta ebaluazioa egiteko, honako gutxieneko dinamika jarraituko da:

- Urtean behin, esku-hartzearen urteko plangintza eta ebaluazioa egiteko bilera.
- Hiru hilabetean behin, plangintza horren jarraipena egiteko bilera.

  Aurreko bi puntuetan aipatzen diren bilerak burutu aurretik txostenak aurkeztu beharko dira.
- Hilean behin, detekzioan, esku-hartzean… egon daitezkeen gorabeherak elkar trukatzeko bilera.
- Formazioa: Udaleko teknikariekin batera adostutako Formazio Plan baten barruan, zerbitzuan jardungo duten profesionalak euren eginkizunekin lotutako gaietan profesionalki eta teknikoki trebatzea.

5. ADJUDIKAZIO-HARTZAILEAREN BETEBEHARRAK

Aipatutako eman beharreko zerbitzuez gain, adjudikazio-hartzaileak honako betebeharrak izango ditu:

- Zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren langileak jartzea, zerbitzua beti 2 profesionalekin emateko (bat gizona eta bestea emakumea). Hauetako profesional bakoitzak urtean 1.350 orduko zerbitzua eman beharko du. Ordu-kopuru hauek honela banatuko dira: % 15 detekziorako, % 70 esku-hartzerako, eta % 15 koordinazio eta planifikazio lanetarako. Zerbitzuan jardungo duten profesionalek gizarte edota hezkuntza zientzien arloko unibertsitateko titulazioa izan beharko dute.

  Koordinazio lanetarako koordinatzaile bat izan beharko du adjudikazio-hartzaileak. Koordinazio lan hauek %11,3ko dedikazioa izango du. Funtzioen artean egongo dira, besteak beste, zerbitzuaren jarraipena egitea eta udalarekiko bitartekaritza lanak.

ESKUc271b40c-337b-4365-a0b2-c1c18bdc7d85

- Enpresako arduradun bat egon beharko da, zerbitzuan jardungo duten profesionalen lantaldearekin, Udaleko Gizarte Zerbitzuekin koordinazio-lanak egingo dituena.
- Adjudikazio-hartzaileak 3 hilabetetan garatuko diren jarduera berezien aurreikuspena aurkeztu beharko du, ekintza hauek izango dituzten gastuen aurreikuspenarekin batera. Udalak ontzat emanez gero, jarduera horrek suposatuko lukeen gastua udalak hartuko du bere gain, pertsonalarena izan ezik, eta betiere udal aurrekontuan jasotako diru-izendapenak aukera ematen duen heinean.

  Plan hori onartuz gero, betetzea derrigorrezkoa izango da, eta edozein aldaketa egiteko premia sortuz gero, udalarekin adostuta bakarrik egin ahal izango da.

  Bestalde, jarduera hauetan erabiltzeko erosten den edozein material udalarena izango da.
- Bere agindupeko langileriaren portaera ona zaintzea eta erabiltzaileei zerbitzu ona eskaintzea.
- Kontratu honen ondorioz sortuko diren eskubide eta betebeharrak beste inori ez ematea, udalaren baimen propio eta idatzirik gabe.
- Burutu behar duen jarduerarekin lotuta indarrean dauden betebehar legalak betetzea.
- Zerbitzua ematean besteei eragindako kalteez erantzutea eta gutxienez 300.000 euroko kapitala duen Erantzukizun Zibileko aseguru poliza kontratatzea, kontratu honen xede diren zerbitzuak eskaintzeagatik sortutako erantzukizuna estaltzeko.
- Burutzen duen jarduerari dagokion Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea.
- Udalak eskatutakoan, plegu honetan jasotako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea.
- Zerbitzuan jardungo duen enpresa udalak dituen bulego-ordutegian lokalizatuta egotea, nahiz eta Bergaran ez egon.
- Hamabost eguneko epean, sor daitezkeen ezintasunak edo bateraezintasunak jakinaraztea, ondoren justifikatzea eta iraupenaren araberako aukerak proposatzea.
- Honako hauetako xedapen guztiak betetzea: Lan Legeria, Berdintasun Legea, Gizarte Segurantza, eta indarrean dagoen Esku Hartze Sozialari buruzko Gipuzkoako Lan Hitzarmena; bai eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea eta hori garatzen duten Errege Dekretuak ere; bai eta zerga gaietako xedapen guztiak ere. Udala guztiz libre geratzen da xedapenok ez betetzetik sor daitekeen edozein erantzukizunetatik.
- Eskainitako zerbitzuari buruz urteko txosten-memoria aurkeztea.

6.- BERDINTASUN ESKAKIZUNAK

- Udaleko Berdintasun Zerbitzuarekin elkarlanean, berdintasuna sustatzeko esku-hartzeak diseinatu.
- Adingabeen eta gazteen errealitatea aztertu genero-ikuspegitik, eta Berdintasun Zerbitzuarekin partekatu detektatutakoa: genero-desberdintasunak, aniztasunaren trataera…
- Halaber, Berdintasun Zerbitzutik garatzen diren kanpainetan (Emakumeen Eguna, Indarkeria matxistaren kontrako eguna, LGTBI+ harrotasuna…) parte hartzeko bideak bilatu.

ESKUc271b40c-337b-4365-a0b2-c1c18bdc7d85

- Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egitea sortutako agiri eta euskarrietan. Halaber, emakumeen irudiari dagokionez balio hauek sustatu behar dira: berdintasuna, ordezkaritza orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna, eta genero rolen eta identitateen aniztasuna.
- Generoaren ikuspegia kontuan izatea kontratua egikaritzean sortzen diren txosten, idatzi, datu-bilketa, estatistika eta abarretan.
- Langileen bizitza pertsonal eta familiarra eta laborala uztartzea errazteko neurriak hartzea.
- Urteko balorazio-txostenean jasotzea generoak zer nolako eragina izan duen kontratazioan, pertsona onuradunengan, eta langileengan. Aplikatutako berdintasun-neurrien eragina ebaluatu ahal izateko, sexuaren arabera banatutako datu eta adierazleak erabiliko dira.
- Neurriak hartuko dira sexu-jazarpena eta sexu-ondoriozko laneko jazarpena saihesteko, eta gertatzen den kasuetarako esku hartzeko protokolo bat zehaztuta egongo da aurretiaz.

7.-HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK

7. 1.- Lege-oinarria

Kontratazio honek hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea bete behar du, besteak beste honakoetan jasotakoak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6.artikuluan.
- Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan eta otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan (Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa).
- Eta Bergarako Udalbatzarrak 2023-05-22an onartutako euskararen erabilera normalizatzeko planean jasotakoa (Bergarako udalaren webgunean ikusgai).

7.2.- Zerbitzua emango duen pertsonalak euskararen gaitasun-mailaren aldetik bete beharreko baldintzak

Bergarako Udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte zerbitzua emango duten langileek ere euskarazko gaitasunari dagokienez. Hori dela-eta, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, hezitzaileek euskarazko gaitasunari dagokionez **C-1 euskara gaitasuna** egiaztatu beharko dute.

Eskaintzarik onuragarriena aitortu eta 10 egun baliodunen barruan, enpresak egiaztatu beharko du zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako euskara maila. Maila hori egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

- Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako euskara-maila dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
- Bergarako Udalak erabakitako froga egitea.

Euskara maila egiaztatzen ez bada, beste langile bat(tzuk) aurkeztu ahal izango ditu eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileak. Bigarren saiakera honetan lortuko ez balu, eskaintza bertan behera utzi duela ulertu eta hurrengo lizitatzaileari egingo zaio Baldintza Administratibo Zehatzen Agirietan jasotako errekerimendua.

ESKUc271b40c-337b-4365-a0b2-c1c18bdc7d85

Behin zerbitzua exekutatzen egonda, pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere euskara-gaitasuna egiaztatu beharko dute aipatu bi bideetako bat erabilita. Aipatu prozesu bera jarraitu eta gaitasuna egiaztatzen ez bada, Udalak kontratua suntsitu ahal izango du. Hori gertatuz gero, adjudikazio-hartzaileak ez du izango kalte-ordainik erreklamatzeko eskubiderik izango eta, gainera, galdu egingo du ezarritako behin betiko fidantza.

7.3.- Hizkuntzaren erabilera eta jarraipena:

Zerbitzu-hizkuntza

Orohar, udal langile zein ordezkari politikoekiko harremanak euskaraz izango dira. Eta udalean aurkezteko txostenak eta memoriak ere euskaraz izango dira.

Zerbitzuaren hartzaileekiko harremanetan ere euskararen erabilera bultzatuko da:

-Ahozko harremanetan:

Orohar, lehen hitzak beti euskaraz izango dira eta jarrera proaktiboa izango da; hau da, mezu hartzaileak euskara ulertzen badu euskaraz jarraitzeko gonbita egingo zaio (“ahobizi” jarrera).

Harremana banakakoa denean, aurrez aipatutako “ahobizi” jarrera izango da, ahal bada euskararen erabilera bultzatzeko, baina hartzailearen arabera moldatuko da hizkuntza.

Hartzaile multzoa denean, euskararen erabilera bultzatzeko aukera desberdinak aztertuko dira (Udaleko Euskara Zerbitzuan eska daiteke aholkularitza). Irizpide orokor moduan, Udalak aukera hauek bultzatzen ditu:

- partaideen gehiengoak euskara ulertzen badu, euskaraz izatea azalpen nagusiak eta euskara ulertzen ez dutenei bakarkako azalpenak ematea edota hizkuntzaren trataera aztertzerakoan euskarari lehentasuna ematea.
- partaideen gehiengoak euskara ulertzen ez badu, taldean nagusiki gaztelaniaz egin arren, euskarari sarbidea emango zaio eta euskaraz egin nahi dutenei aukera bermatuko zaie.
- Eta guraso, herritar eta bestelakoekin izan beharreko harremanei dagokienez, Udalak onartuta daukan Euskara Normalizatzeko Planean jasotakoak bete beharko dira, hartzaileen hizkuntza eskubideak ere errespetatuz.

-Idatzizko harremanak

- Euskara ulertzen dutenekin euskaraz egingo da. Bestelakoetan elebitan (euskaraz eta gaztelaniaz), euskarari lehentasuna emanda.

Hizkuntza-paisaia

Enpresa adjudikazio-hartzaileak Bergarako Udalak Euskararen Erabilera Sustatzeko Planean jasotako hizkuntza-irizpideak jarraitu egin beharko ditu; bereziki, hizkuntza paisaiako elementuei dagokienez (errotulu, argibide, herritarrentzako oharrak...).

Horrenbestez, elementu horiek euskaraz jarriko dira piktogramaz lagunduta, piktogramaren bitartez ulergarriak direnean. Halaber, euskara hutsean jarriko dira mezuak ezagunak edo berez ulergarriak direnean: euskaraz eta gaztelaniaz antzekoak direlako…

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, ele bietan (euskaraz eta gaztelaniaz) jarriko dira euskarari lehentasuna emanez, bai kokalekuaren aldetik eta bai neurriaren aldetik ere.

ESKUc271b40c-337b-4365-a0b2-c1c18bdc7d85

Euskararen kalitatea

Ahoz zein idatziz erabiliko den euskararen kalitatea (zuzentasuna, ulergarritasuna...) bermatu beharko da.

Hizkuntzaren erabileraren inguruan zalantzarik izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzuak emango ditu behar diren aholkuak.

Euskararen erabileraren jarraipena

Azkenik, zerbitzu-kontratazioa bultzatu duen udal zerbitzuak (Ongizate Zerbitzuak) egingo du hizkuntza-irizpideak betetzearen jarraipena (Euskara Zerbitzuarekin adostutako ildoei jarraituz), gainerako baldintzen jarraipena egiten duen moduan. Eta horren berri emango dio Udaleko Euskara Zerbitzuari. Hortaz, urteko jardueraren txosten/memorian hizkuntzaren erabilera-datuak ere txertatuko ditu adjudikazio-hartzaileak.

8.- INGURUGIRO ESKAKIZUNAK

Ingurumenarekiko inpaktua murrizte aldera, honako neurriak hartuko ditu adjudikazio-hartzaileak:

1. Laneko dokumentuak formatu elektronikoan entregatu behar dira posta elektronikoaren edo zerbitzari baten bidez (dokumentuak deskargatzeko estekak dituztela, edo ftp bidez), edo, bestela, USB edo antzeko euskarriren batean, betiere birgrabagarriak eta irekiak, berriro erabili ahal izateko.
2. Kasu guztietan - Dokumentuak inprimatzea beharrezkoa bada edo kontratugileak hala eskatzen badu (laneko txostenak, bileretako dokumentuak, etab.), esleipendunak hau egin behar du:
    - Kontratugilearekin adostu dokumentuak inprimatu behar diren ala ez, ez badu kontratugileak zuzenean eskatu.
    - Ahalik eta ale gutxiena inprimatu, beharrei egokituz (bilera bateko partaide-kopurua, etab.), kopiarik ez dadin sobera geratu.
    - % 100 birziklatutako papera erabili (% 65, gutxienik, kontsumitu ondokoa) edo baso kudeaketa iraunkorreko edo birziklatutako zuntzen edukia gutxienik % 20koa duen paper birziklatu gabea.
    - Agiri inprimatuak eskatzen badira, erabili behar diren paper birziklatuen eta/edo ez birziklatuen dokumentazioa aurkeztu (izena, marka, ezaugarri teknikoak eta ingurumen-ezaugarriak) kontratuaren hasieran, kontratugileak onar dezan. Kontratuaren iraunaldiak aldaketarik izanez gero, horien berri eman egin behar da, eta kontratugileak, onartu.
    - Dokumentuak alde bietan eta zuri-beltzean inprimatu (zuri-beltzean interpretatu ezin bada erabili behar da kolorea; bestela, ez), alde bakoitzean bi orrialde edo gehiago daudela (hala komeni bada eta ulertzeko moduan dagoela bermatzen bada), ahalik eta gutxiena koadernatuta eta plastikozko azalik gabe (errazago birziklatzeko).
    - Hondakinen berrerabilpena eta/edo gaikako bilketa bermatu beharko du adjudikazio-hartzaileak, zatiak bereiziz, behar bezala kudeatzeko baliabideak jarriz

ESKUc271b40c-337b-4365-a0b2-c1c18bdc7d85

lana burutzen den eremu guztietan. Halaber, adingabeekiko esku-hartzeetan arreta berezia emango zaio ingurumenaren errespetuari.

9.- PROGRAMAREN ESKURA EGONGO DIREN BALIABIDEAK

Udalak honako baliabide materialak jarriko ditu programaren eskura:

- Bulegoa hezitzaileentzat
- Zerbitzuan jardungo duten profesionalek gazteekin zenbait ekimen garatzeko udal ekipamenduak erabiltzeko aukera izango dute, betiere aurrez udalean dagokion eskaera eginda.
- Ekintza eta talde lanerako espazioa

Bulegoaren garbiketa adjudikazio-hartzailearen kontura izango da, bai eta zerbitzuan jardungo duten profesionalek erabili dezaketen beste edozein ekipamenduaren garbiketa ere.

Bergarako Udalak proiektu honetako ekintza batzuk aurrera eramateko urtero 6.000,00 euroko aurrekontu bat izango du. Diru honen erabilera Udalaren aurrean zuritu beharko du enpresa adjudikazio-hartzaileak.

Adjudikazio-hartzaileak zerbitzuari honako hauek atxiki beharko dizkio:

- Beharrezko material didaktiko, pedagogiko, juridikoa…, esku-hartzea gauzatu dadin.
- Zerbitzua behar bezala ematea bermatuko duten ekipo eta programa informatikoak.
- Zerbitzura zuzenki edo zeharka lotuta dauden profesional guztien eta Gizarte Zerbitzuen Departamentuko langileen artean komunikazioa bermatuko duten komunikazio eta jarraipenerako baliabide teknikoak (langileentzat mugikorrak, posta elektronikoa…).

Zerbitzu honen enpresa adjudikazio-hartzaileak erabiltzaileei arreta egokia emateko beharrezko beste edozein material eta zerbitzuren gastuak bere gain hartu beharko ditu, profesionalaren garraio-gastuak barne baldin eta herritik kanpora egin beharreko akonpainamendua beharrezkoa balitz.

10.- EGUTEGI ETA ORDUTEGIA

Ohiko zerbitzua astelehenetik ostiralera, goiz eta/edo arratsaldeko ordutegian eskainiko da. Hala ere, egutegi zein ordutegi hau malgua izango da dauden beharretara egokitzeko.

Zerbitzuaren egutegi eta ordutegia aurkeztu beharko du adjudikazio-hartzaileak eta horren zehaztapenaren eta onarpenaren azken hitza Udalak izango du.

11.- SEXU-DELITUEN BERARIAZKO ZIGOR-AURREKARIEN ZIURTAGIRIA

Adingabekoaren Babes Juridikoaren urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa betez –Umeak Babesteko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak aldatua eta Boluntariotzaren urriaren 14ko 45/2015 Legeak aldatua–, sexu-delituen berariazko zigor-aurrekarien ziurtagiriak aurkeztu behar dira beren funtzioak betetzeko adingabekoekin lan egiten duten zerbitzuetako langile guztiei buruz, eskaintzarik onuragarriena aitortu, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 egun baliodunen barruan.

Sinatuta:

Xabier Legorburu Igartua

ESKUc271b40c-337b-4365-a0b2-c1c18bdc7d85

Gizarte Zerbitzuen Departamentua
Departamento de Servicios Sociales
Bergaratik 010 – luz/ext: 1210
Bergaratik kanpo 943 779 100 - luz/ext: 1210
e-posta: ongizatea@bergara.eus

Gizarte Zerbitzuen Arduraduna

DILIGENTZIA: Jasota gera dadila arrisku-egoeran egon daitezkeen gazte eta adingabeei ingurune irekian prebentzio-zerbitzua gauzatzeko Baldintza Teknikoen Agiri hau 2024ko uztailaren 7ko dekretu baten bidez onartutakoa dela.

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan.

IDAZKARIA

.

ESKUc271b40c-337b-4365-a0b2-c1c18bdc7d85

Gizarte Zerbitzuen Departamentua
Departamento de Servicios Sociales
Bergaratik 010 – luz/ext: 1210
Bergaratik kanpo 943 779 100 - luz/ext: 1210
e-posta: ongizatea@bergara.eus

PLIEGO TÉCNICO DE CONDICIONES PARA LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE PREVENCIÓN, EN ENTORNO ABIERTO, DESTINADO A JÓVENES Y MENORES EN SITUACIÓN DE RIESGO

1. OBJETO DEL CONTRATO

Constituye objeto del contrato la adjudicación de la prestación del servicio de prevención, en entorno abierto, dirigido a jóvenes y menores en situación de riesgo.

2. NORMATIVA APLICABLE AL SERVICIO

Serán de aplicación la totalidad de las disposiciones legales que rigen en materia de Servicios Sociales y, especialmente, las siguientes:

- Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero, de Protección Jurídica del Menor, de modificación parcial del Código Civil y de la Ley de Enjuiciamiento Civil.
- Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.
- Decreto 64/2004, de 6 de abril, por el que se aprueba la carta de derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia; y Ley 3/2009, de 23 de diciembre, de modificación de la Ley de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia.
- Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.
- Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.
- Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.
- Ley 1/2016, de 7 de abril, de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias.
- DECRETO 152/2017, de 9 de mayo, por el que se aprueba la actualización del Instrumento para la valoración de la gravedad de las situaciones de riesgo y desamparo en los Servicios Sociales Municipales y Territoriales de Atención y Protección a la Infancia y adolescencia en la Comunidad Autónoma del País Vasco (Balora).

3. DESCRIPCIÓN DE LAS CONDICIONES DEL SERVICIO

El objeto principal de este servicio es acompañar en el proceso de desarrollo personal de las personas jóvenes y menores que pueden encontrarse en situación de riesgo y dotarles de herramientas formativas para que adquieran competencias y participen con normalidad en los recursos y servicios comunitarios del municipio.

El contrato tendrá por objeto los servicios siguientes:

- **Detección** de las siguientes situaciones de riesgo en el municipio:
    - Fracaso escolar (inadaptación escolar, abandono escolar temprano…)

ESKUc271b40c-337b-4365-a0b2-c1c18bdc7d85

- Consumos precoces y peligrosos de drogas (legales e ilegales), juego y nuevas tecnologías.
- Socialización inadecuada (relaciones peligrosas/conflictivas entre iguales, rupturas, bulling...).
- Violencia machista o conductas de riesgo/nocivas en relaciones de pareja
- Otras situaciones que puedan darse.

- Elaboración y ejecución de **propuestas de intervención** en las situaciones de riesgo arriba mencionadas.
- **En colaboración** con los Servicios Sociales:
  - Valoración de las características de las situaciones de riesgo detectadas
  - Propuestas de intervención preventiva ante las situaciones de riesgo detectadas. Propuestas de todas las intervenciones.
  - Relación con otros departamentos municipales (Deportes, Cultura, Juventud…) u otras entidades bergaresas (escuelas, asociaciones de padres y madres…) que puedan incidir en este ámbito.
  - Todo cometido que haya sido acordado con el personal técnico de Servicios Sociales.

4. DINÁMICA DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO

De cara a la planificación, seguimiento y evaluación de todo ello, habrá de seguirse como mínimo la dinámica siguiente:

- Una vez al año, reunión para la planificación y evaluación anual de la intervención
- Una vez al trimestre, reunión para realizar el seguimiento de la planificación.

  Con anterioridad a la celebración de las reuniones citadas en los dos puntos anteriores, deberán presentarse los informes correspondientes.
- Una vez al mes, reunión para intercambiar información sobre posibles incidencias en cuanto a detección, intervención...
- Formación: Dentro de un Plan de Formación concertado con el personal técnico municipal, las/los profesionales del servicio se formarán profesional y técnicamente en los aspectos vinculados a sus funciones.

5. OBLIGACIONES DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA

Además de los servicios citados que deberá prestar, la empresa adjudicataria deberá cumplir las siguientes obligaciones:

- Contar con el personal necesario para la adecuada prestación del servicio, que será atendido en todo momento por dos profesionales (un hombre y una mujer). Cada profesional deberá prestar 1.350 horas de servicio al año. Estas horas se distribuirán del siguiente modo: 15 % para detección, 70 % para intervención, y 15 % para labores de coordinación y planificación. Los/as profesionales del servicio deberán estar en posesión de titulación universitaria en el ámbito de ciencias de la educación o de ciencias sociales.

ESKUc271b40c-337b-4365-a0b2-c1c18bdc7d85

- El adjudicatario deberá contar con una persona que se encargará de las labores de coordinación. Estas labores de coordinación tendrán una dedicación del 11,3%. Entre las funciones estarán el seguimiento del servicio y la intermediación con el ayuntamiento
- Deberá haber un/a responsable de la empresa, que efectuará labores de coordinación entre el equipo de profesionales y los servicios Servicios Sociales municipales
- La parte adjudicataria deberá presentar la previsión de las actividades extraordinarias a desarrollar durante 3 meses, junto con una previsión de los gastos que puedan suponer. En caso de ser aprobada por el ayuntamiento, éste asumirá el gasto que supongan dichas actividades, excepto el de personal, y en la medida en que lo permitan las consignaciones económicas recogidas en el presupuesto municipal.

  Dicho plan, una vez aprobado, será de obligado cumplimiento, y en caso de que se precise modificarlo en algún aspecto, sólo podrá hacerse en concertación con el ayuntamiento.

  Por otra parte, cualquier material que se adquiera para su utilización en estas actividades será propiedad del ayuntamiento.
- Cuidar del buen comportamiento del personal a su cargo y prestar esmerado servicio a las personas usuarias.
- No ceder a terceros los derechos y obligaciones que deriven de este contrato, sin previa autorización expresa y por escrito del ayuntamiento.
- Cumplir las obligaciones legales vigentes respecto a la actividad que ha de llevar a cabo.
- Responder por los daños causados a terceros en el desarrollo de la prestación del servicio, y contratar una póliza de seguro de Responsabilidad Civil con un capital mínimo de 300.000 euros para la cobertura de la responsabilidad derivada de la prestación de los servicios objeto de este contrato.
- Estar dado de alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas correspondiente a la actividad que desempeña.
- Presentar, a requerimiento del ayuntamiento, los documentos acreditativos del cumplimiento de las obligaciones establecidas en el presente pliego.
- La empresa que preste el servicio deberá estar localizable durante el horario de oficina del ayuntamiento, aunque no se encuentre en Bergara.
- Notificar, en un plazo de quince días, las imposibilidades o incompatibilidades que hubieran podido sobrevenir, justificándolas posteriormente y proponiendo posibilidades en función de su duración.
- Cumplir las disposiciones vigentes en materia de legislación laboral, Ley de Igualdad, Seguridad Social, y Convenio Colectivo vigente en Gipuzkoa respecto a Intervención Social, así como en la Ley 31/1995 de Prevención de Riesgos Laborales y Reales Decretos que la desarrollan, y en materia tributaria. El ayuntamiento queda totalmente exonerado de cualquier responsabilidad que pudiera derivar del incumplimiento de estas disposiciones.
- Presentación de una memoria-informe anual sobre el servicio prestado.

ESKUc271b40c-337b-4365-a0b2-c1c18bdc7d85

6.- REQUISITOS DE IGUALDAD

- En colaboración con el Servicio Municipal de Igualdad, diseñar intervenciones para la promoción de la igualdad.
- Analizar la realidad de menores y jóvenes desde la perspectiva de género y compartir con el Servicio de Igualdad los aspectos detectados: desigualdades de género, tratamiento de la diversidad...
- Así mismo, encontrar vías para tomar parte en las campañas desarrolladas desde el Servicio de Igualdad (Día de la Mujer, Día contra la violencia machista, Orgullo LGTBI+...).
- Realizar un uso no sexista del lenguaje y de las imágenes en los documentos y soportes que se elaboren. Así mismo, en relación con la imagen de la mujer se deben fomentar valores de igualdad, representación paritaria, diversidad, corresponsabilidad y diversidad de identidades y roles de género.
- Tener en cuenta la perspectiva de género en todos los informes, escritos, recogida de datos, estadísticas, etc. que se deriven de la ejecución del contrato.
- Adoptar medidas que faciliten al personal trabajador la conciliación de su vida personal, familiar y laboral.
- Recoger en el informe anual de valoración cómo ha incidido el género en la contratación, en las personas beneficiarias y en las personas trabajadoras. Al objeto de evaluar el efecto de las medidas de igualdad aplicadas, se utilizarán datos e indicadores diferenciados por sexos.
- Se adoptarán medidas para la prevención del acoso sexual y del acoso por razón de sexo en el trabajo, y en caso de producirse se seguirá el protocolo de intervención que debe estar previamente establecido.

7.- REQUISITOS LINGÜÍSTICOS

7.1.- Fundamento legal

Esta contratación se regirá por el régimen de doble oficialidad lingüística recogido, entre otros, en:

- Artículo 6 del Estatuto de Autonomía de la Comunidad Autónoma Vasca.
- En la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y la normativa que lo desarrolla, entre otros, en los Decretos 179/2019, de 19 de noviembre, y 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el sector público vasco.
- Y lo recogido en el plan de normalización del uso del euskera aprobado por el Pleno del Ayuntamiento de Bergara el 22-05-2023 (disponible en la página web del Ayuntamiento de Bergara).

7.2. Requisitos a cumplir por el personal prestatario del servicio en cuanto al nivel de euskera

El personal que preste el servicio deberá garantizar, en lo que a su competencia lingüística en euskera se refiere, unas condiciones similares a las que serían exigibles al Ayuntamiento de Bergara. Por ello, teniendo en cuenta la naturaleza de los servicios a prestar, los/as educadores/as deberán acreditar en cuanto al euskera el nivel de competencia C-1.

ESKUc271b40c-337b-4365-a0b2-c1c18bdc7d85

Una vez declarada la oferta más ventajosa, en el plazo de 10 días hábiles, la empresa deberá acreditar que las personas que vayan a prestar el servicio cuentan con el nivel de euskera requerido, cuya acreditación podrá hacerse de las dos maneras siguientes:

- Presentación de documento que acredite que la(s) persona(s) que vaya(n) a prestar el servicio alcanza(n) el nivel de euskera exigido.
- Realización de la prueba que determine el Ayuntamiento de Bergara.

En caso de no acreditar dicho nivel de euskera, la licitadora que haya presentado la oferta más ventajosa podrá presentar otros/as trabajadores/as. En caso de no conseguirlo en este segundo intento, se entenderá que desiste de la oferta, de modo que se realizará a la siguiente licitadora el requerimiento previsto en los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares.

En caso de que, una vez que esté prestando el servicio, se incorporaran nuevas personas, éstas también deberán acreditar su competencia en euskera a través de alguno de los dos medios mencionados. Tras seguir el mismo proceso y si no se acredita dicha competencia, el ayuntamiento podrá resolver el contrato, sin que la adjudicataria pueda reclamar derecho a indemnización alguna y, además, con pérdida de la fianza definitiva depositada.

7.3.- Uso y seguimiento del lenguaje:

Lengua de servicio

En general, las relaciones con las personas trabajadoras y representantes políticas municipales serán en euskera. Así mismo, los informes y memorias que se hayan de presentar en el ayuntamiento serán en euskera.

También se potenciará el uso del euskera en las relaciones con las personas destinatarias del servicio:

- En las relaciones orales:

  En general, las primeras palabras serán siempre en euskera y la actitud será proactiva; es decir, si la persona destinataria entiende euskera se le invitará a seguir en euskera (actitud "ahobizi").

  Cuando la relación sea individual, se seguirá la actitud "ahobizi" antes citada, a ser posible para favorecer el uso del euskera, pero la lengua se adaptará en función del destinatario.

  Cuando se trate de un grupo de destinatarios/as, se estudiarán diferentes opciones para impulsar el uso del euskera (se puede solicitar asesoramiento en el Servicio de Euskera del Ayuntamiento). Como criterio general, el Ayuntamiento impulsa las siguientes opciones:

  - si la mayoría de los/as participantes entiende el euskera, las explicaciones principales serán en euskera y a las personas que no lo entienden se les dará explicaciones individuales, o al analizar el tratamiento de la lengua se dará prioridad al euskera.
  - En el caso de que la mayoría de las personas participantes no entiendan el euskera, aunque la sesión sea principalmente en castellano, se dará presencia al euskera y se garantizará la opción a quienes quieran hablar en euskera.
  - Y en cuanto a las relaciones con padres, madres, ciudadanos/as y demás, deberán cumplirse las recogidas en el Plan de Normalización del Euskera aprobado por el Ayuntamiento, respetando también los derechos lingüísticos de las personas destinatarias.

- Relaciones escritas

ESKUc271b40c-337b-4365-a0b2-c1c18bdc7d85

- Con quienes entiendan el euskera, las relaciones serán en euskera. Y en los demás casos, en bilingüe (euskera y castellano), dando prioridad al euskera.

Paisaje lingüístico

La empresa adjudicataria deberá cumplir los criterios lingüísticos que el Ayuntamiento de Bergara tiene establecidos en el Plan de Normalización del Uso del Euskera, especialmente en lo que respecta al paisaje lingüístico (rótulos, información, avisos a la ciudadanía...).

Por tanto, dichos elementos se colocarán en euskera acompañados de pictogramas, cuando mediante el pictograma se entienda el mensaje. Asimismo, los mensajes se pondrán exclusivamente en euskera cuando sean conocidos o comprensibles en si mismos por su similitud en euskera y castellano...

Cuando no sea posible ninguno de los dos casos anteriores, se colocarán en bilingüe (euskera y castellano) dando prioridad al euskera, tanto por ubicación como por dimensiones.

Calidad del euskera

Se deberá garantizar la calidad del euskera utilizado (su corrección, comprensión...), tanto a nivel oral como escrito.

Ante cualquier duda sobre el uso de la lengua, el Servicio Municipal de Euskera facilitará el asesoramiento necesario.

Seguimiento del uso del euskera

El servicio municipal promotor de esta contratación (Servicio de Bienestar Social) realizará el seguimiento del cumplimiento de los criterios lingüísticos (siguiendo las directrices acordadas con el Servicio de Euskera), tal como realiza el seguimiento del resto de condiciones. Y lo comunicará al Servicio Municipal de Euskera. Por tanto, en el informe/memoria anual de la actividad, la empresa adjudicataria incorporará también los datos de uso del euskera.

8.- REQUISITOS MEDIOAMBIENTALES

Con el fin de reducir el impacto ambiental, la adjudicataria adoptará las siguientes medidas:

1. Los documentos de trabajo deben ser entregados en formato electrónico a través del correo electrónico o de un servidor (con enlaces de descarga de documentos, o mediante ftp) o, en su defecto, en un soporte USB o similar, siempre regrabables y abiertos para su reutilización.
2. En todos los casos - Si fuera necesario imprimir los documentos o si así lo solicitara la contratante (informes de trabajo, documentos de sesiones, etc.), la adjudicataria deberá:
    - Acordar con la parte contratante la necesidad o no de imprimir los documentos, si no lo ha solicitado directamente la parte contratante.
    - Imprimir el menor número posible de ejemplares, ajustándose a las necesidades (número de participantes en una sesión, etc.), a fin de que no sobren copias.

ESKUc271b40c-337b-4365-a0b2-c1c18bdc7d85

- Utilizar papel 100% reciclado (mínimo 65% de posconsumo) o papel no reciclado de gestión forestal sostenible con un contenido mínimo del 20% de fibras recicladas.
- En caso de que se soliciten documentos impresos, al inicio del contrato aportar la documentación (nombre, marca, características técnicas y medioambientales) de los papeles reciclados y/o no reciclados a utilizar, para su aprobación por parte de la contratante. En caso de que se produzcan modificaciones en la duración del contrato, éstas deberán ser comunicadas y aceptadas por la contratante.
- Imprimir los documentos a doble cara y en blanco y negro (el color se utilizará únicamente si no se pudiera interpretar en blanco y negro), con dos o más páginas por cara (si es conveniente y se garantiza que sea inteligible), encuadernado lo menos posible y sin cubiertas de plástico (para facilitar su reciclado).
- La adjudicataria deberá garantizar la reutilización y/o recogida selectiva de los residuos, separando las fracciones, poniendo los medios para su correcta gestión en todas las áreas en las que se desarrolle el trabajo. Asimismo, en las intervenciones con menores se prestará especial atención al respeto al medio ambiente.

9.- RECURSOS A DISPOSICIÓN DEL PROGRAMA

El ayuntamiento pondrá a disposición del programa los siguientes recursos materiales:

- Oficina para el equipo de educadores/as
- Los/as profesionales del servicio tendrán la posibilidad de utilizar los equipamientos municipales para el desarrollo de iniciativas con los/as jóvenes, siempre que previamente realicen la correspondiente solicitud al ayuntamiento.
- Espacio para la actividad y el trabajo en equipo.

La limpieza, tanto de la oficina como de cualquier otro equipamiento que puedan utilizar los/as profesionales del servicio, correrá a cuenta de la empresa adjudicataria.

El Ayuntamiento de Bergara dispondrá de un presupuesto anual de 6.000 euros para llevar a cabo diversas actividades del presente proyecto (la utilización de esta cuantía estará supeditada a justificación por parte de la empresa adjudicataria ante el ayuntamiento).

La adjudicataria deberá adscribir al servicio:

- El material didáctico, pedagógico, jurídico... que sea necesario para realizar la intervención.
- Los equipos y programas informáticos que garanticen una adecuada prestación del servicio.
- Medios técnicos de comunicación y seguimiento (móviles para el personal, correo electrónico...) que garanticen la comunicación entre las personas profesionales vinculadas directa o indirectamente al servicio y las personas profesionales del Departamento de Servicios Sociales.

La empresa adjudicataria de este servicio deberá asumir los gastos de cualquier otro tipo, material o de servicio, que sea necesario para prestar una correcta atención a las personas usuarias, incluidos los gastos de transporte de la persona profesional cuando sea necesario realizar acompañamientos fuera del municipio.

ESKUc271b40c-337b-4365-a0b2-c1c18bdc7d85

Gizarte Zerbitzuen Departamentua
Departamento de Servicios Sociales
Bergaratik 010 – luz/ext: 1210
Bergaratik kanpo 943 779 100 - luz/ext: 1210
e-posta: ongizatea@bergara.eus

10.- CALENDARIO Y HORARIO

El servicio se ofrecerá habitualmente de lunes a viernes, en horario de mañana y/o tarde, si bien este calendario y horario será flexible para adaptarse a las necesidades existentes

La adjudicataria deberá presentar el calendario y horario del servicio, cuya concreción y aprobación corresponderá, en última instancia, al ayuntamiento.

11.- CERTIFICADO DE ANTECEDENTES PENALES ESPECÍFICO SOBRE DELITOS SEXUALES

En cumplimiento de la Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero, de Protección Jurídica del Menor, modificada por la Ley 26/2015, de 28 de julio, de Protección de la Infancia, y por la Ley 45/2015, de 14 de octubre, de Voluntariado, en el plazo de 10 días hábiles contados a partir del día siguiente al de la declaración y notificación de la oferta más ventajosa, la licitadora presentará certificados de antecedentes penales específicos sobre delitos sexuales de todas las personas trabajadoras de los servicios que en el desempeño de sus funciones trabajen en contacto con menores.

Sinatuta:

Xabier Legorburu Igartua
Responsable de Servicios Sociales

DILIGENCIA: Para hacer constar que este pliego de cláusulas técnicas para la ejecución del servicio de prevención, en entorno abierto, dirigido a jóvenes y menores en situación de riesgo ha sido aprobado mediante decreto emitido el día 12 de julio de 2024.

Bergara, a la fecha de la firma electrónica.

LA SECRETARIA

EKS | CSV: **ESKUc271b40c-337b-4365-a0b2-c1c18bdc7d85**
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07410
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07410